

# Nafarkaria

• ostirala • 1999ko urriaren 1a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Betelu** • Ostiral gaueko sukarrari nola aurre egin azalduko dute drogaren inguruko erakusketa eta hitzaldian. **Pello Ormazabal** • «1 Formulara heltzeko babesle handia behar da»

## Tuterako ijitoen marraskilo haztegia



• IÑAKI VERGARA


Erriberako hiriburuko La Romani ijitoen elkarteak marraskilo haztegia paratu zuen iaz, droga eta delinkuentzia zela-eta arrisku egoeran zeuden bertako sei gaztek horretan lan egin zezaten. Urtea akitzeaz batera akituko da Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza, eta haztegiaren kudeaketa bi ijito familiek hartuko dute. Ijitoak betidanik aritu dira marraskilo biltzen, eta haztegi horrek bi familiari horretatik bizitzeko bidea emango die.



# Betelu • 'Ostiral gaueko sukarrari aurre nola egin'

Droga-menpekotasuna eta horren ondorioei buruzko erakusketa eta hitzaldi bat izango dira asteburuan

**Ostiral gaueko sukarrari aurre nola egin izeneko erakusketa osatzeko, hitzaldia eskainiko du gaur Txus Congilek. Ekitaldi guztiak Indianoetxean izango dira, eta gazteengana heldu nahi dute.**



Askagintzako kide Txus Congilek hitzaldia emango du drogomenpekotasuna eta honen ondorioen inguruan. ● ARTXIBOKOA

**B**EHIN ETA BERRIZ ENTZUN izan dugu John Travolta protagonista zuen pelikula haren izenburua, gai desberdinetako hainbat gauzari lotua. Jai giroa dakar beti burura izenburu horrek, baina jakina da, jaiak bere arriskuak ere badituela. Erabaki zuzena hartzea da arrisku horiek saihesteko bidea. Ez gauez bakarrik, ezta jai giroan soilik, drogen arriskua non-nahi eta noiznahi topa dezake gazteak, baina baita giro horietan ere.

Irurtzungo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatu di-

tuen ekitaldien helburua ez da erabakia zein izan behar duen zehaztea. Antolatzaileek gazteei helarazi nahi dieten mezua hau da: drogak kontsumitu ala ez erabakitzeko orduan, kontuan hartu behar direla erabakiaren ondorio guztiak, bai onak, baita kaltegarriak ere. Ondorio horiek dira aipatu erakusketak azaltzen dituenak. Erakusketa

Nafarroako Gazte Kontseiluak antolatu du, eta joko interaktiboa dela esan daiteke. Helburua dinamika bat sortzea da. Gazteari aukera anitz aurkezten zaizkio, eta horien aurrean erabaki zehatz bat hartu behar du. Igandea arte izango da zabalik erakusketa, 17:00etatik 21:00etara.

Bestalde, gaur, iluntzeko 21:30etan, Askagintzako kide

Txus Congilek hitzaldi bat emanen du, droga-menpekotasunari eta horren ondorioei buruzkoa. Batez ere droga-menpekotasunaren eragina eta gaur egungo egoera aztertuko ditu Congilek. Baina horren aurretik Indianoetxeraino hurbiltzen direnek bideo bat ikusteko aukera izango dute. Askagintza elkarteak eginiko muntaia horren bidez, prebentzioa, narkotrafikoa, kontsumoa, egungo egoera eta alternatibak azalduko dira, besteak beste.

Irurtzungo Gizarte Zerbitzuak antolatu ditu ekitaldi horiek, Askagintza elkarteak eta Araitz-Beteluko Gazte Asanbladak lagunduta. Ez da Gizarte Zerbitzuak egiten duen lehen ekimena. Uda honetan, esaterako, Festak Kontrolatu izeneko kanpaina jarri zuen abian.

Gizarte Zerbitzukoek dienez, askotan uste izaten dugu, drogena hiri handietako arazoa dela soilik. Baina leku guztietan topa daiteke drogen arriskua, baita herri txikietan ere. Horregatik, bertako gazteei argibide guztiak eman behar zaizkiela uste dute. Zentzuz jokatu behar da, eta, horretarako, gaia menperatzea garrantzitsua izan daiteke.

→ Urko Aristi

## Iruñea

### Nafarroako musika zaharra eskainiko du Plazatik Salarat taldeak

PLAZATIK SALARAT NAFARRO-ako musika taldeak *Erromesendako doinuak* izenburuko kontzertua emanen du gaur, Iruñeko Karmeldarren elizan (Descalzos kalean), arratsaldeko 20:30etatik aurrera. Emanaldi horretan, Nafarroako musika zaharra (XVI eta XVIII. mende bitartekoa) eskainiko du Plazatik Salarat taldeak, antzinako moldean, gainera. Barroko garaiko musika tresnak eta jotzeko gisa erabiltzen dituzte taldekideek, zehazki, eta "Euskal Herriko musikaren alaitasuna eta sentimendua, eta duen aberastasuna islatzea" dute helburu.

Koldo Azkona, Alfonso Iturria, Amaia Martinez, Javier Navascues eta Gabriela Lopezek osatzen dute Plazatik Salarat, eta mokadun flauta, biola, bilontxelo eta klabea jotzen dituzte. Gaurko kontzertuan eskainiko dituzten kanta eta doinuetan, denetarik entzuteko parada izanen dute Karmeldarren elizan biltzen diren entzuleek: Nafarroa Garaiko doinu zaharrak, Nafarroa Behereko antzinako piezak, Iruñeko katedraleko eliz musika, Uitziko ingurutxo eta Zuberoako hotsak, beste batzuen artean.

→ Daniel Urrutia

## irulegitik

### JOJO BIDART

## Baxe Nafarroak ba ote du gerorik?

**I**parraldean egin izan berri den jendeen kontaktak ez dauku sorpresa handirik ez eta zorientzeko arrazoin mikorik ekarri. Aintzineko kondakete eta azken urteetako prebisiok errana egiaztatu beizik ez dute: baxe nafatar gero eta gutiago gaude, gero eta zaharragoak gainera.

Urtero beldurtxo batekin aipatzen dugu ikasturte abiatzea: herriko eskola zerratzea hor, gela guttitze han, eskola bateratuak hemen. Betiko arrazoina: haurren kopurua beheititzen ari!

Hori aski ez balitz, tarteka aipatzen diren xerbituen berregituraketak erran nahi baitu kontzentrazioak gelditzen ahal ziren azken ilusioak errausten zauz-kigu: hil zorian daude eskola eta postarik gabe dauden herriak, eta noren aldia izanen den beldurra hedatzen ari da Probintzia guzian.

Beharrik hor dugula laborantza, gure ekonomiako

sustrai nagusia. Laborantza industrialisatuaren parean, lur eremu guttitan zerbait egin ditaikela frogatu daukute hemengo laborariek hainbat urtez. Gainera laborantxari lotzen den gazteen proportzio handiena hemen aurkitzen omen da.

Bainan gure sektore sendoenean ere arraildurak agertzen dira azken urte hauetan: segidarik gabeko etxaldearen kopurua handizki emendatzen ari da.

Tendentzia nagusiak hor daude, aspaldian aipatuak, iduri eta ezin dela deus egin urratua den ildotik ateratzeko.

Kostaldekoko hiri nagusietako logoneak bilakatu behar ote dugua? Udatiarren pausatoki exotikoa? Aste buru ongi merezituaren pasagune lasai eta garbia? Larrazkeneko ihiztarien eremu sakratua? Nafarra batu mitikoaren urtean behineko ospagunea?

Zerbait egin dezakegu finkatuak izan zauzkigun

irudi hauetatik urrunago joaiteko? Aste oso eta guzietako bizi *normal* batetarat heltzeko?

Ekonomiak duela gizartea bideratzen entzuna dut behin baino gehiagotan eta berrikitan erran daudate garapen ekonomikoa aipatzeko *masa kritiko* bat behar zela konduan hartu. Ipar Euskal Herri Barnekaldea, eta are gutiago Baxe Nafarroak ez duela behar bezalako *masarik* garapenez mintzatzeko. Gure aterabide bakarra Baiona-Donosti-Iruña eremu eta biztanlego zabalago batean kokatzen dela.

Baditake!

Dena den, konduan hartua izaiteko pizu bat izan behar dela jakina da bereziki diru eta bozetan kondatuz. Mase kritiko egoki batean ukan dezakegun partea sinbolikoa baino gehiago izanen ote da?

Ez gaiten adituen erantzuneri beha egon. Masa kritikorik gabeko lurralde ttiki guziak bil gaiten.



# Lizarra • '125 karratu'

Horrelaxe deitzen da egunotan Fray Diego kultur etxean ikusgai dagoen erakusketa

**Bi dira artistak, bakoitzak lau koadro paratu ditu, eta koadro guztietan ertz batetik bertzera 125 zentimetro daude, eta 125 karratu hitz-jokoak ematen dio izena erakusketari. Margoen barrualdean koloreak, formak, sentipenak, emozioak, ilusioak eta begiradak ageri dira.**



Pedro Irulegiren eta Mikel Costaren margolanek haiek informalismoaren inguruan duten ikuspegia azaltzen dute. ● KRISTINA BERASAIN

**A**SPALDIDANIK EZAGUTZEN DUTE elkar Pedro Irulegik eta Mikel Costak. Biak gazteak dira, biak artistak. Margetzeko erabiltzen duten lantegia partekatzen dute. Hala ere, biek informalismo deituriko mugimenduaren barruan kokatzen dute beren lana. Eta oraingoan biek tamaina bereko koadroak egin dituzte. Koadro bakoitzaren neurria hau da: 125x125; hots, 125 karratu. Eta horixe da egunotan Fray Diego kultur etxean ikusgai dagoen erakusketaren izena.

Aurreneko aldiz prestatu

dute elkarrekin erakusketa; formatu bera erabili dute, eta informalismoa abiapuntu izanik, bakoitzak bere alderdi pertsonala irudikatu du margoan. «Biok informalismoa erabiltzen dugu gure margoaren oinarrian», esan digu Pedro Irulegik. «Dena dela, momentu jakin batean bakoitzak mugimendua bere alde pertsonaleraino ekartzen du, eta, beraz, bakoitzak koadro ezberdinak sortzen ditu». Begibistakoa da bien margoen artean dagoen lotura eta harmonia; haatik, gauzak zehaztu behar dira, nabardurak

kontuan izan. Mikel Costaren lana «materikoa» da, konposizioaren barruan egiten duen ikerketaren emaitza. Hala, margoaren azalak garrantzi berezia hartzen du, eta margoaz gain bertzelako materialak ere erabiltzen ditu; igeltsua, esaterako. Koloreak lurrrarenak dira, gorriak, marroiak, laranja, eta tartean argi zuriak, izpi horiak eta pintzelada metalikoak sartzen ditu. Margo espresionista da Costarena, naturaren ikuspegi latza, maldatsua.

Pedro Irulegik, aldiz, margo sinpleagoa lortzen du, margo

leuna, arina eta lasaia. Horretarako, erliebea eta bolumena alde batera uzten ditu, eta lerroari, marrazkiari eta grafismoari ematen die garrantzia. «Diseinu grafikoaren munduan aritua naizenez, nire margoan ere eragina dauka grafismoak eta, beraz, lerroak eta marrazkiak agerikoak dira oso. Nire margoa hondoaren eta lerroaren arteko konbinazioa da», erran du Irulegik. Koloreak argiak dira. Funtsean, naturari eginiko omenaldi abstraktu eta isila da.

→ Kristina Berasain



## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

### Senpereko langileak

Joan den udaberrian jakin zen Senpereko Yplon kosmetika lantegia itxi eginen zutela. Afera zertan dagoen eta bertako langileen egoera zein den jakiteko, halekin mintzatu dira **Ttipi-tapa** aldizkariak eta azken zenbakian bildu dute elkarriketa: «Yplon 1984ko uztailean ideki zen eta 1988an bermoldatu zen enpresa. 1998an 59 langile dauzka, baina hestearen afera 98ko urrian sortu zen, Fouwe zuzendariak aldaketak hitz eman zituelarik. Lantegian europar legeak errespetatu behar zituzten eta sinetsarazi zuten inbertsio ala inbestizamenduak eginen zituztela Senperen.

Holakorik ez da izan eta aurtengo udaberrian jakin dugu Yplon hetsiko zela. Martxotik aitzin akziodunek ez dute diru gehiagorik eman nahi eta martxoaren 1ean Yploneko jabeek zuzendaria kanporatzen dute. Zerbaiten esperantza eman zuten alta! Orain lanpostu batzuz proposatzen dituzte Bretaña eta Belgikan».

Senpereko langileek, ordea, ez dute alde egin nahi: «Ez da nehor harat gainen. Gu hemengoak gara, familiak eta bizi osoa hemen ditugu eta Euskal Herriari lotuak gara. Edozein gisaz ez du balio harat gatea, denbora guti barne

hango lantegiak ere hetsiko baitituzte, gure ustez. Momentuko aterabidea bertzerik ez litzateke izanen».

«Lana galtzea zinez gogorra da. Halere elkartasuna izan dugu Senpereko Saltzaileen Batasunaren aldetik. Sustengua erakutsi digu jendeak eta gure artean ere biziki lotuak izan gara. Heldu den urriaren 11an, berrogeita bortz enplegatu kanporatuko dituzte. Yplonek bersailkatze saila ideki du, lan-miatzea erreteko. Hau egitera bortxatua izan da zuzendaritza. Orain Senpereko Lizardia lan-zelaia kasik hutsa geldituko da».

## Arrazakeria eta Hizkuntzakeria

Eman dezagun Iruñean erabili ditzakegun Villabesak bi motatakoak direla: batera txuriak soilik igo daitezke, bestera txuriak zein beltzak. Balizko egoera honi arrazakeriaren kutsu bat, kirats bat dario, ezta?, baina, hala eta guztiz ere, ezjakinaren papera egin dezagun eta Villabesak txuriak zein beltzak, nahasturik, garraiatzeko gai direla ikusi eta gero galdetu dezagun, umilki bada ere: zer dela eta mantentzen dira txuriendako soilik diren autobusak?, edo hobeto: zer arrazoia dago txuri horiek, «euren autobusetan», beltzak alboratzeko? Txuriek, seguru asko, oso modu demokratikoan, eskaintza desberdinen artean hautatzeko opzioa baduzuela esango dizute, egoskorrak zaretela, ostia, probokatzaileak, beltzekin joan nahi izan ezker horixe duzuela eskaintza publikoa, eta guos, guos, guos. Bale. Baina galdera mantendu dezakegu: zer arrazoia dago txuri horiek, «euren autobusetan», beltzak alde batera uzteko?

Galdera hori bera egin nahi diet nik NUPekoei. Karrera bukatu eta titulua eskatzerakoan bi aukera ematen baitizkizute: titulua gaztelaniaz soilik edo gaztelaniaz eta euskaraz eska dezakezu, elebiduna. Bale. Elebiduna eskatzen duzu eta kitto, ezta? Hau da hau gizartearen aniztasuna eta abar eta abar! Hau da hau aukera librearen mundua! Orain... galdera da... zer arrazoia dago ikasle horiek, «euren tituluetan», euskara alde batera uzteko? Hau al da proposatzen zaigun elebitasuna? Eskaxa iruditzen zait, eta barka bezate nire fanatismoa. Aurretik aipaturiko autobus arrazisten antzeko titulu hizkuntzistak somatzen ditut NUPeko hauek. Ngé M'Debelek txurien Villabesak begiratzerakoan harritzen den modu berean harritzen naiz neu ere. Bozgorailuetatik Aniztasun sakratuaren alde ari dira, Elebitasun-ditxosozkoari buruz, eta gaur eta hemen elebidunak diren bakarrak euskaldunak dira. Besteek beraien autobus partikularretan bidaiatzen segitzen dute eta kitto. Gizarte anitzaren alde zer ostias eskaintzen dute txuriendako soilik diren autobus hauek? ●





# Tuterako ijitoen haztegia

Sei ijito gaztek eraiki duten marraskilo haztegiak bi familiaren beharrak asetzea espero du La Romani elkarteak

Tuterako La Romani ijitoen elkarteak marraskilo haztegia paratu zuen iaz, drogak zirela-eta arrisku zeuden bertako sei gazte horretan lan egin zezaten. Urtea amaitzean Nafarroako Gobernuaren diru laguntza ere bukatuko da, eta haztegia bi ijito familiak hartuko dute. Ijitoek betidanik aritu dira marraskilo biltzen, eta haztegi horrek bi familiari horretatik bizitzeko bidea emango die.

**T**UTERAKO TRASLAPUENTE INGURUAN 1.800 metro koadroko lur eremua du La Romani, Tuterako ijitoen elkarteak. Hantxe paratu dute marraskilo haztegia. 1998an putzu bat eraiki, lur eremua garbitu, hesi bikoitzarekin inguratu eta hiru zatitan banatu zuten. Alpapa dagoen zatian ugaltzen dira marraskiloak. Kardua, aza eta orburuen zatian jaten dute. Eta hirugarren zatian, eguzkiaren izpietatik eta hezetasunatik babesten dira han dauden zuhaitzetan. Azken zati horretan hibernetzen dute marraskiloak.

Marraskiloen haztegiaren proiektua 1998an jarri zen abian, eta aurtengo abenduaren 31n bukatuko da. Sei gazte aritu dira lanean, 18 urtetik 25era bitartekoak. Arrisku egoeran zeuden gazte horiek, droga aferetan nahasturik, delinkuentzian edota kartzelan egondakoak ziren. Han izan da, esaterako, buru-osasun zentro batean errehabilitatzen dagoen gazte bat. Nafarroako Gobernuak ordaindu du proiektuaren gehiena. Gazteei lan saria eta Gizarte Segurantzza ordaindu diete, eta La Romani lantokiaren mantenimendu gastuak ordaindu ditu (milioi eta erdi pezeta inguru).

### Marraskiloetan adituak

Silvia Donlo La Romani elkartearen lan egiten duen 25 urteko gizarte laguntzailea da. Bere bulegoan marraskiloen inguruko liburua du. Marraskiloetan aditua dugu orain Donlo. «Ezin dituzu marraskilo mota ezberdinak nahastu, eta urtearen garai zehatz batean bota behar dira», erran du. «Adibidez, orain hasten dira hibernetzen, eta orain botatzen badituzu hilen dira. Erraten dutenez, bi urtetan laukoiztu egin daiteke marraskiloen kopurua. Marraskilo bakoitzak 40 arrautza jartzen ditu».

Marraskilo haztegia bi ijito familiak kudeatzea nahi du La Romani elkarteak. Azaroan aukeratuko dituzte kudeatzaileak, lanean ari diren gazteen familien artean. Elkarteak lagunduko die familiei, baina haztegitik ateratzen duten etekina eurendako izanen da.

Marraskilo kilo guti bota dituzte orain arte, 300 bat. La Romani erosi ditu marraskilo horiek, ijitoei zein ijitoek ez direnei. «Badakite marraskiloak erosten ditugula eta hona etortzen dira. Nik uste dut 1.500 kilo bota ditzakegula haztegian». Orain marraskiloak erosten ari da La Romani, baina helburua saltzea da.

Haztegia bi ijito familiak kudeatzea nahi dute. «Guk lagunduko diegu, baina haztegitik ateratzen duten etekina eurendako izanen da», esplikatu du Donlok. «Espero dugu enpresa bat eratuko dutela. Azaroan aukeratuko ditugu familiak, lanean ari diren gazteen familien artean». NAFARKARIA erreportaiak egitera La Romaniren egoitzara heldu zelarik, haztegian lanean ari den gazteetako batek kotxe istripua izan zuen egoitzaren aitzinean. Zorionez, lepoa pixka bat bihurritu zitzaion soilik. «Istripua izan duena aukeratuko dute ziurrenik. Horrek oso ongi egin du lan. Beste batzuekin etengabeko borroka izan da lanera joan zitezten. Batez ere udan, herrietako jaiak zirela eta».

Ijitoek urtean bizpahiru hilabetetan lan egiten dute, eta horrekin nahikoa dute urte osorako. «Lanaren kontzeptu hori aldarazi behar zaie, baina oso zaila da», dio Donlok. «Baina betiere, noski, ijitoen kultura errespetatuz. Ezaugarri bereziak dituzte ezkontza, edadeteukiko errespetu eta familiari dagokionez. Ijitoen familia bat 20 lagunek osatzen dute. Etxe berean bizi dira, eta lapi-ko beretik jaten dute».

### Jan talde ona

Jose Hernandez Escudero da lantokiaren begiralea. Donlok dioenez, oso lan ona egin du gazteekin. «Gazteekin ongi moldatu naiz. Baina batek edo bestek arazoak sortu ditu. Bik alde egin zuten, horretarako arrazoirik

Drogak direla-eta arrisku egoeran dauden gazteak aritu dira marraskilo haztegian. Horietako bik haztegia ateratzen dituzte, etekinarekin bizitzeko aukera izanen dute. ● INAKI VERA



# marraskilo

Silvia Donlo

La Romani ijitoen elkarteke gizarte laguntzailea

Jesus, marraskilo haztegitiko gazteetako bat:

«Nik arazoak izan ditut drogekin, eta hemen lagundu egin naute. Orain metadona tratamenduan nago, eta hemen primeran nago lanean. Eskaini didaten aukera hagitz estimatzen dut»

«Gazte arteko giroa oso ona omen da. Jose Antoniok azaldu duenez, hamaiketako izugarri ederrak egiten dituzte. «Garrantzitsuena denon arteko lana da», erran du. «Ongi egiten dugu lan, eta ongi tratatzen gaituzte. Ez dizute asko exijitzen, eta arazo sozialez hitz egin digute. La Romani familia askori ematen dio laguntza».

Gazteen arteko giroa oso ona omen da. Jose Antoniok azaldu duenez, hamaiketako izugarri ederrak egiten dituzte. «Garrantzitsuena denon arteko lana da», erran du. «Ongi egiten dugu lan, eta ongi tratatzen gaituzte. Ez dizute asko exijitzen, eta arazo sozialez hitz egin digute. La Romani familia askori ematen dio laguntza».

### La Romaniren lana

La Romani lau esparru lantzen ditu: hezkuntza, osasuna, gizarteratzea eta garapena. Hezkuntza esparrua emakumei zuzendua dago batez ere. «Bizitzan mugitzeko gutienekoa irakasten diegu: idazketa, irakurketa eta zenbaketa», azaldu du Donlok. «Goizetan hainbat jardura egiten ditugu; jantzigintza eta saskigintza, kasu. Ordaindu egiten zaie horretan aritzeagatik. Ijitoak motibatzeko modua da, zaila baita ijitoek zerbait egitea ordainetan deus jaso gabe. Eta goizekoaren ordainetan, arratsaldeetan klaseetara joan behar dute». Maniatzeko komunitate zaila da. «Gida karneta ateratzen ere laguntzen diete. Ijitoentzat zaila da autoeskola batera joatea, garestiak direla. Irakasleak hitzak azaltzen dizkie, eta azterketa La Romaniren egoitzan egiten dute bideo bidez».

Osasunari dagokionez, gizarte fragile komunitarioa izeneko bat dute, Nafarroko osasun publikoko institutuak ordaindua. «Emakume ijitoa da, eta bitartekari lana egiten du gehiengoaren gizartearen eta ijitoen gizartearen artean», dio Donlok. «Etxetara joaten da haurrek txertoak hartu behar dituztela edota haurdun dauden emakumei hainbat azterketa egin behar zaizkiela erratera». Halaber, iaz droga prebentzioarako programa bat egin zuten, eta arrakastatsua izan zen. Arrisku egoeran dauden neska-mutil guztiak izan ziren programan. Aurten hisaren prebentzioaren ingurukoa izanen da.

Gizarteratzeari dagokionez, ijitoen jardura ohikoak egiten dituzte; saskigintza, esaterako. Ijitoek betidanik egin dituzte zumezko saskitxoak, marraskiloetarako eltxeak eta antzekoak. Heldu den urtean sukaldaritza eta ilepintze jarduerak egin nahi dituzte. Bestetik, etxebizitzak lehengoratzeko programa ere badute.

Azkenik, garapenaren esparruan, Donlok azaldu duenez, euren helburuetako bat da «gehiengoaren gizartearen ezagutaraztea». Marraskiloen haztegia horretarako egin dute, eta bi ijito familiak «gehiengoaren gizarte» horretan sartzerik izanen duten ikusiko dute heldu den urtean.

## «Lana aurkitzea da ijitoen arazorik larriena»

Tuteran 575 bat ijito daude, eta hiru elkartetan banaturik daude: La Romani, San Juan eta La Cali elkarteetan. La Romani da elkarterik handiena, 81 familia-tako 297 lagun biltzen baititu. Elkarteke kideak bazkideak dira, baina ez dute kuota-rik ordaintzen. Elkarte Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzei esker bizi da. Ijitoen batzorde bat dago, eta beraiek banatzen dute dirua. Silvia Donlo La Romani elkarteke gizarte laguntzaileak familia guzietan fitxak ditu, eta jaiotzak kontrolatzen ditu, gaztekoen eskolatzeko eta abar-rrak. La Romani 1989an sortu zen, Tuterako ijitoen komunitatearen arazoei aurre egiteko.

### Zein da ijitoen arazorik larriena?

Lana aurkitzea da ijitoen arazorik larriena. Oso zaila da ijito bat gehiengoaren lan munduan sartzea. Alde batetik, bazterketa eta arrazakeria hor daudelako oraindik. Eta bestetik, ijitoek oso kostatzen zailakoa lan dinamika horretan sartzea. Aldizkako langileak dira, zenbait hilabete egiten dituzte lanean, eta zaila egiten zaie horrenbeste hilabete irauten duen lana izatea. Gure zioa da ijitoak heztea, uler dezaten arau batzuk badaudela, ordutegi batzuk, eta ezin dela berandu heldu. Baina luzea da egin beharreko bidea. Gainera, beharrezko ezagupenak falta zaizkie lan kontratuak, nominak eta antzekoen inguruan. Horregatik, antzietan euren lanaz aprobetxatzen dira. Badi-ra gazteak hamabi prdu sartzen dituztenak, kontratu eskaekin, oporrak kobratzen dituztenentz jakin gabe, aparteko orduak zer diren jakin gabe. Baina hilabete bukaeran dirua dutenez, berdin zaie.

### Eta arrazakeria?

Arrazakeriaren kontua anitz aldatu da. Lehen haur ijito guztiak eskolatik kanpo zeuden. Orain, haurren %99 daude eskolatan. Hala ere, gaztetxoak soilik daude eskolaturik, ijitoak 14 urterekin gizon bilakatzeko direlako eta, ordurako, euren etxetean agintzen dutelako.

### Nola ikusten dute ijitoek La Romani?

Ijitoendako topagunea da La Romaniren egoitza. Emakumeak oso gustura etortzen dira hona, edozer gauzari buruzko edozein iritzi plazara dezaketelako inork euren ahoa itxi gabe. Gazteak ere gustura datoz. Egun batean 20 bat lagun bildu ziren, eta jai flamenkoa egin zuten. Pozik bizi dira ijitoak, nahiz eta etxerik edo lanik ez izan. Ez dute etorkizunaren edo aurreztearen bate-re ideiarik, eguneko bizi dute.

Asier Azpilikueta



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Madrilgo bizkaitar bat gurean: Jose Basterretxea Oskillaso 10

Iruñean jada bizi zela eman zituen argitara Oskillasok *Kurloiak* eta *El libro negro del euskara* bere lanik ezagunen bezain polemikoenak; eta, Madrilen jaio zen gernikarra ingeles irakasle izan dute hainbat eta hainbat iruindarrek, seguroenik ere jakin gabe, euskara batutik arras hurran dagoen euskara osotuaren sortzailea izan zela.



**J**ose Eliseo Basterretxea Matoni Madrilen jaio zen, 1911.eko abenduaren 9an. Gernikako Saraspe auzoan zen baina urtebetea egin aitzin engoitik; bertako agustindarren ikastetxean ikasi ostean, Valladolidera lehenbizi eta Madrilera gero joan zitzaigun matematikako eta fisikako karrerak burutzera (1928-1933); bestalde, Madrilen familia osoarekin izan zen, bada, Oskillasoren aita zen Juan Pedro Basterretxea Iruñeko Marinako Ministerioan enplegatua baitzegoen itsasontziko kapitaina izateari behin laga ostean. Gerra baino lehen, Eusko Ikasle Batzako buru izendatu zuten, eta, hortaz, guduak iraun bitartean Parisen izan zen, baina hantxe bizimodua aurrera ateratzeko zeuzkan zalitasunek eraginda, Bartzelonan zuen familarengana joan zitzaigun. Gerra ostean Iruñera etorri zen estreinakoz, Agerreren sendiak delituta, Gurbindoren partez Vinculoko plazan zegoen institutuan ingelesezko eskolak eman zitzen. Geroago, 1943.ean hain zuzen, Madrilera itzuli zen hartzara, hango unibertsitateko matematika irakasle; 1946.ean Madrildik Lleidara ingeles irakasle, 1952.ean berriz ere Madrilera, eta 1955.ean, azkenik, Iruñera etorri zitzaigun betiko, Príncipe de Vianako institutuan ingeles eskolak emateko artaz, bai eta 1957. ez geroz, Nafarroako Unibertsitate pribatuan, fisika irakasle hasieran, eta euskara eta euskal kultura irakasteko 1971-1986 urte bitartean, Joxemiel Barandiaranen ondotik. Jubilatu ostean, Iruñean geratu zen, eta bertan hil zitzaigun, 1996.eko apirilaren 25ean.

Bi dira, oroz gain, Basterretxeak utzi zizkigun lan guztien artean egun bereziki ezagunak gertatzen direnak: *Kurloiak* eta *El libro negro del euskara*. Lehenbizikoa, hau da, *Kurloiak: kaletarren haur-zarua Bizkaian*, 1962.ean argitara atera zen Zarauzko Itzaropena argitalda-

riaren eskutik; Patxi Urruti-koaraunabeitia mutikoak bizitakoak jasotzen dituzten hogeita bat kontatera, gehi Azkue-ren gipuzkera osotua gaudituko lukeen euskara osotuaren proposamena luzatzekoa den hitzaurre luzanga dira liburu honen mamia. Hala edo nola, Oskillasoren haurtzaroan berean oinarriturik dagoen testua bereak proposatzen zuen euskara literario berriaren eredu genuke, horregatik ere, ez zuen kritikariengandik arras epai samurra jaso; Villasantek balio literarioa onartu bazion ere, hasierako proposamenarekin akortegi ez baitzen, honela idatzi zuen *Arantzazu* aldizkarian: "Liburu guztia ere bizkaitar jatorrez egin izan balu, askoz atsegiago, gozoago ta gustagarriago irtengo zan euskaldun guztientzat"; ber moduan ere, Mitxelenak *Kurloiak* liburuari darion umore ingelesa goraki txalotuagatik ere, Oskillasok zerabilen euskalki nahasketari ez zeritxon onargarri: "Ez baitago ozpin minagorik elkarrekin ezin ezkon daitezkeen goxokiz nahasia baino". Blei lhardetsi zien Basterretxeak *Egan*-en, Villasanteri 1962.ean eta Mitxelenari 1963.ean. *Kurloiak* liburuaren zorioneko hitzaurrean berean, berriz, berak asmatu euskara osotuaren proposamena azalduko lukeen liburu iragartzen zigan Oskillasok, eta berandu bada ere, horixe litzateke gorago alpatu bigarren lan entzutetsua, hau da, *El libro negro del euskara* (Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca, 1984), Akademiatik proposatutako euskara batuaren arrakastaren eta onarpenaren ikuspegi ezezkorra eta, bere unean bederen, errealista.

Hala eta guztiz ere, eta iduri dezakenari aitzin, Basterretxea ez zen bazterturik izan, eta 1963.eko urriaz geroztik euskaltzain urgazle gauen, eta gorai-



patuak izan diren bestelako lanak egin zizkigun; esaterako, fonologia arloan; honetaz, *Fontes Lingua Vasconum* gurean bi lan eman zituen argitara, *Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica* 1974-1975. urteetako zenbakietan, eta *Hizkera soinua dala ta* 1976.ekoan, lehenbizikoz Txillardegik mendebaldeko azentuaz egin den deskribapenik zehatzenetakotzat jotzen zigularik. Hauxe aparte *Gernikako hizkeraren arabera, euskal entonazioari buruz ikerketak* eta *Euskal azentua* eman zituen argitara *Euskera*-n 1982.ean eta 1986.ean hurrenez hurren.

Literaturan ere, ipuin egile naraio izan genuen, eta *Egan*-en atera zuen lanik gehien: *Mikel eta erdaldunak* (1962) —baita San Martinek eta Basaurik aipalatu *Hegatsez* 1971.eko hitz-lauzko bilduma zaharrean—; *Nylonezko euritakoa* eta *Zerura joan eta etxera etorri* —1964.ean biak, lehenbizikoa Donostiako euskal jaietako lehen ipuin sarian irabazle suertatu zelarik—; *Hitzkuntzalari handi bat* eta *Jostailuak, semeak eta gurasoak* —biak 1965.ean, eta lehenbizikoa baita liburu beltzean ere—; eta *Akatsbako gizonaren heriotza* (1967). Itzulketa ugari ere egin zituen Madrilgo bizkaitarrak: Edgar Allan Poeren *Upel bete amontillado*, Mark Twainen *Erregaia* eta *eskekoa*, edota Charles Dickensen *David Copperfield*. Argitara eman gabe hainbat idazki ere utzi zizkigun Oskillasok: *38. paraleloa*, *Gabeko atorra*, *Euskalerriko baserrietan baño abadezaletasun gehiago Madril* —1967.eko Kirikiño sariketan saritua Juan Antonio Letamendiaren lanaren ondotik—, edota *Los gemelos de Iturriondo* erdarazko eleberria.

## etorri ahalean

Patziku Perurena

ooo



### Lizarra

**N**ere guztizko arboletakoa duzu Lizarra. Hizketan ikasi baino lehen, amaren magalean eta auzoko neskatoen besoetan, askotan egondua omen naiz atariko lizarpean. Ezaguera dudanetik, berriz, gogoan dut mutikozkorretan nola ibiltzen ginen jostaka. Karretoko soroan bertan izaten genuen lizar haundi adartzabal haren itzalean. Hantxe botatzen genituen udako beroaldirik haundienak. Zangulua ere paratzen zigun aitak, adar oker batetik zintzilik, eta hantxe ibiltzen ginen dilindan, bihotz ttiki erne hura hegaminez genuela, lizarpe guzia larraindu arte.

Udatzenean, garaitsu honetan, lizar egitera joaten ginen. Aitak lizar gaineko adaskak moztu eta behera bota ahalean nik zatukatan bildu. Sei zortzi zatuka egitean, aitak lotu, astoa kargatu, sokak lizar karrote batekin ongi estutu, eta arrei, ni astazai; ofizio nobleztat daukat oraino. Gure ondotik ardi behor larrabehiak etortzen ziren lizarrosto ondarren surrian. Handik egun batzutara, lizarrosto idortuxetzen zenean, eta eguraldi motelantza izan, nik behetik eman ahalean aitak pilatzen zituen lizar zatukak bordako gaindegian.

Belaxe negua eta, ekaitzaldia bazen, ilunabarrero bordara joan, behorak sartu, eta erdi ilunbetan gaindegitik bizpahiru lizar zatuka nola botzen nizkien ere gogoan dut, oraintxe egiten ari banintz bezalaxe. Nola ekarri orde hitzetara, gaindegian nik lizar hotsa atera ordu behorak behetik egiten zuten irrintziak bihotzondoan eragiten zidan birbirreko! Eta ondoren bordatik etxera bidean, kazkabar eurlan zip egina, motiko ttiki hark ekartzen zuen poza? ekaizte ikaragarri hartatik salbo, abereak aterbe beroan lizarrosto jaten utzi zituelako palentia burutik ezin kenduz?

Gero, etxabereak lizar ostoa

eta adar muturrik gurienak janda gelditzen ziren lizar zotzak datozkit gogora, nonahiko borda ataritan, lizarrodoen arri-mora pilatuak; eta elur dezenterik egiten bazuen, inguruko behorrek nola urratzen zituzten pilak, goseak amorratzen zotzik meheen guziak karruzkatuz; eta auzoko aitona artzaiak zenbat aldiz ikusi ote ditut astoan lizar zotzak harturik bordatik etxera datozela: Ogaitoloko aitona, Artantxukoa... zakua burutik behera, hanka hankari ezin emanik xirriki xarraka...

Lurreko sutan ziuka atzeko muturretik apar zuria zeriela ikusten eta aditzen genituen lizar karrote heze haiek edo lizar morroek, berriz, Orixeren "Suondoko otsa" dakarkidate gogora. Udaberri aldera, lizar adaxka lodiskonak eta xuxenek berexu eta kimatuz lizar arabak egiten genituen, egur xopote baten gainean xorroxtu eta, leka aihenen eusgarri patzeko baratzan.

Beste miraria, lizarrodoek elur zuritan erakusten duten kolorajea da neretzako. Hone-taz Leitzan ohartu nintzen. Ez dut inon ikusi "Lizarrak elurretan" izeneko koadrorik, baina norbaitek pintatzen asmatu balu, munduko koadrorik zoragarriena litzateke. Zenbat aldiz egondu ote naiz elurretan lizarrei begira Zigarateko lepoan, Estensoroetan, Albitxuri aldean, Beordainen... Zoragarria benaz.

Oi, zenbat bizitze eta oroitze eder lizarri esker! Herenegun aritu ginen Irolako bordapekoak moztzen. Eta oraindik, han hemen lizar kiman ikustean inor, poztu bezala egiten naiz; eta nonahi kimatu edo morrotu ezaz tantaitzen eta zakartzen ari direla ikustean penatu bezala.

Baina baina... nola adierazi "Lizarren ere ez haiz busti" saunka datozkidan liberatu izeneko yupi abertzale ezker hotseko horiei, toponimo xeberreki arrotza baizen ez dela izan neretzako Lizarra?

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Handiustea

**P**olitikariek, duela hogeit urte legez, ez dute erakutsi garai berriek eskatzen duten adorea. Maila pertsonaleko ezinikusia nagusi den honetan, adierazpen publikoek simulakroaren eremura garamatzate.




# Pello Ormazabal

☉ Toyota Formulako pilotua

## «1 Formulara heltzeko babesle handia behar da»

**Pello Ormazabal Divo Racing Club automobil taldeko pilotua da, Toyota Formulako txapelketan. Ormazabal eta Divo hasi berriak dira mundu horretan eta, pilotuak behin eta berriro dioenez, 1 Formulara heltzeko babesle handi baten laguntza beharko lukete.**



• INAKI VERGARA

**A**URREKO ASTEBURUAN Ormazabal Madrilgo Jarama zirkuituan izan zen, Divo taldeko eserleku bakarreko ibilgailua gidatzen, eta ez omen zuen gaizki egin.

### ■ Zer moduz Madrilen?

Ongi. Nahiko entrenatuta geunden, eta denbora onak egin genituen. Entrenamendu ofizialetan ez nuen zorte handirik izan, 18. izan bainintzen 23 pilotuetatik. Gero, lasterketan, euria ari zuela, 11. izan nintzen, baina, halako batean, zibarena egin eta 16. bukatu nuen. Eta bigarren txandan 13. izan nintzen. Geroz eta lasterketa gehiago egin, hainbat eta hobeto ibiliko naiz.

### ■ Espero zenuena da Toyota Formula hau?

Hasiera batean uste nuen errazago izanzen zela. Zortzi urte egin nituen kart-ekin, eta hor ongi ibiltzen nintzen. Kart-ak utzi eta hiru urtez egon nintzen ezer egin gabe. Aldaketa gogorra izan da, aldagailuak ezberdinak dira eta zirkuitua handiagoa.

### ■ Nola sortu zen Divo?

Divo Rafael Hernandezen proiektua da. Berak egin du dena, leku guztietatik mugitu da, dirua bilatu du, bera da lan gogorrena egin duena. Zale handia da, eta nahi zuen sortu Nafarroan automobil talde bat. Bazekien kart-etan ibilia nintzela, deitu, elkar ezagutu genuen, eta konbentzitu ninduen pilotu izateko.

### ■ Zein zen Divo taldea sortzeko helburua?

Hasierako helburua zen Nafarroan inoiz egin ez den gauza bat sortzea, Toyota Formulako talde bat. Aurten sartu gara, eta nahiko ongi doa. Ikusi dugu maila handia dela, baina lan ona egin dezakegu. Eta datorren urterako helburu bera dugu, Toyota Formularen jarraitzea. Geroz eta denbora hobeak egiten ditugu, eta 2000. urtetik aurrera ikusiko dugu zein muga dugun. Oso kirol garestia da baina, eta orain babesle on baten bila ari gara.

### ■ Zeure burua 1 Formularen ikusten duzu?

Niregatik, bai. Baina arazoa dirua da. Laguntza gehiago behar dugu. Aurten aurkitu dugu zerbait, baina, hala ere, guti da. Formula honetan entrenamenduak dira gauzarik garestiena. Entrenatzeko dirua behar duzu, eta ez bazara entrenatzen ezin dituzu denbora hobeak egin. Entrenamenduak egin daitezke Madrilgo Jaraman, Bartzelonako Montmelon, Jerez, Valentzian eta Albaceten, han baitira lasterketak. Gu entrenatu gara Pauen, hemendik hurbilen dagoen zirkuitua delako, eta merkeena. Baina lasterketen zirkuituetan entrenatzea izan litzateke hoberena, baita garestiena ere.

### ■ Zer egin behar da 1 Formulara pasatzeko?

Postu onak egiten baldin badituzu, diru sari handiak eskuratzen ahal dituzu, eta lor dezakezu dirua hurrengo

..... ● .....  
*«Postu onak egiten baldin badituzu, diru sari handiak eskuratzen ahal dituzu, eta lor dezakezu dirua hurrengo urtean beste formula nagusi batean izateko»*  
 ..... ● .....

urtean beste formula nagusi batean izateko. Hedabideetan gehiago agertzen zara, jendeak gehiago ezagutzen zaitu eta errazagoa da babesleak lortzea. 1 Formulara heltzeko laguntza behar da, eta hemen ez dago laguntza handirik. Katalunian, Madrilen edo Valentzian jaio izan banintz, errazago nuke. Nafarroan zaletasuna badago, baina ez dago zirkuitu onik, eta zirkuitua da jendea erakartzen duena lasterketak ikustera.

### ■ Nafarroan automobil industria handia dago Volkswagener inguruan.

Alde horretatik, ez duzue laguntzarik jaso?

Hortik ezin dugu dirurik jaso, txapelketa Toyota ibilgailu enpresak eta Castrol olio enpresak babesten dutelako.

Toyota eta Castrol derrigorrezko publizitatea dira eta ezin da jarri produktu bereko publizitaterik. Alde horretatik muga handia dugu, Volkswagen babesle ona izanzen litzatekeelako. Azpiegitura handia du, eta guri eman beharreko dirua ez litzateke ezer beraientzat. Babesle handia behar dugu. Eta Nafarroan, Volkswagen ez bada, besteak tikiak dira.

### ■ Kirol arloko helburua bete da?

Nahi genuena zen errodatzea pixka bat, mundu hau nolakoa zen ikustea, prestakuntzaren berri izatea. Giro ona dagoela ikusi dugu, eta uste baino maila handiagoa. Poliki hasi gara. Ez genuen denboraldi-aurrerik egin, eta lasterketak egin ahala sailkapen hobeak lortu ditugu. Behin mundu honetan sartuz gero, gauza ederrak egin daitezke. Montmelon hobeki egingen dugula, eta hobekiago Valentzian. Baikor nabil. Ni kontent nago, Rafa ere oso kontent dago, eta Divok aurrera jarraituko du. Babesleek nahi zuten guk lasterketak bukatzea, eta lortzen ari gara.

→ Asier Azpilikueta

soslaia

Pello Ormazabal Diaz Irufean jaio zen, 1975eko otsailaren 8an. OHO Jaso ikastolan egin zuen, eta gero Ermitagañako institutura pasa zen. UBI bukatu eta aitaren tailerrean hasi zen lanean. Gero autoen salmenta lanetan ibili da, ibilgailuen mundu hori hagitz gustatzen baita. Kart kotxeetan bortz aldiz izan da txapelduna Nafarroan eta bi aldiz txapeldunordea Euskal Herrian. Duela guti, marketin ikasketak hasi ditu.

Ormazabal kirolzale amorratua da. Pilotua izateko prestakuntza fisikoa arras garrantzitsua da bere ustez. "Erreakzioak askoz ere gogorragoak dira, eta aldagailuak bortitzagoak. Lurretik hiru zentimetroa joaten zara eta bibrazio handiak jasan behar dituzu".

Divo Racing Club iragan urteko udan sortu zen eta Toyota Formularen aritzen da. Promozio formula bat da, Nissan, SuperToyota, 3000 eta Indy formulen antzera. Ormazabalek dioenez, 1 Formulara heltzeko biderik egokiena Toyotatik SuperToyotara pasatzea da, hortik Nissan Formulara eta handik 1 Formulara.



# Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1999ko urriaren 1a

ZALDIEROA. komikizopa.



## Nafar Kronika

Aitor Arozena

### Udazkena eta usoak

**H**emen da udazkena: giltzaurrak, onddoak eta gaztainak lurtean eta usoak airean. Usoak, oi, usoak! Bakearen uso erraten zaie, baina eskopeta danbatekoen artean eta betiko polemiken artean igaroko dituzte Pirinioak Hegoalde-rantz. Tipi-ttapa aldizkarian agertzen denaren arabera, Baztanaldea, Leitzaldea, Malerreka, Bortzirriak, Senpere eta Saran 1.200 ehiza postu baino gehiago daude, 81 ehiza-tokitan banaturik. Ingu-ru honetako populazioaren %15 ehizta-riak dira, hori haurrak eta adinduak bar-nean sartuz eta hagitx emakume ehiztari gutti daudela kontuan hartuz. Gizaseme helduen erdiak baino gehiagok eskopeta-ren bat baduela etxean erratera ausartu-ko nintzateke. Huel, postuen truke izu-garrizko dirutzak ordainduz etortzen diren kanpotarrak gehitu behar. Eskope-ta, baimenak, errebisioak, kartutxoak... dirutza handiak mugitzen ditu fenomeno sozial honek, baina ez dirudi ehiztariel aunitz inporta zaienik; pentsa! Udan bai-no nahiago izaten dute aunitzek urrian oporrak hartu, hilabete osoa etxola itiki batean igarotzeko baizik.

Danbatekoak eta polemikak aipatu ditugu, izan ere solasaldi sutsuen solas-gai suertatzen da ehiza. Ehiztari ez gare-nok *guttleno etnikoa* osatzen dugu inguru honetan, eta kontra egiteagatik bertzerik ez bada ere, xirikatu egiten ditu-gu kafea hartzen beraien balentriak kon-tatzen dituzten ehiztariak. Nahiz eta gero, usoa saltsan prestatuta gustura aski jan!

Ekologistek argi gorria bixtua dute aspaldidanik, eta lehenbaillehen neurri batzuk hartu beharra aipatzen dute, ez badugu Ameriketan usoe kin gertatu zena gertatzerik nahi. Han ehun urteren buruan espezie oso bat desagertu zen ehizaren eraginez. Ehiztariak ez dute arazoa horrenbertzerako denik uste, gehiago oraindik, ez dute arazoa inondik ikusten. Gainera, Iparraldeko ehiztariak ere gehi-ago tiratzen omen diote hegaztiari, edozein modutan, hegaztien norabidea desbidera-tuz. Bistan da, norberak berea defendatzen du. Kontuak kontu, hau leitzen duzunerako hasi izanen dira eskopetak mintzatzen. Beraz, kontu eman mendira zoazenean.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

► **Iruñea:** Carmen Virus taldearen kontzertua gaur, Artsaia aretoan, 23:00etan. Sarrerak 800 pezetan.

### HITZALDIAK

► **Antsoain:** Antsoaingo Eztabaida Foroak denboraldi berria hasiko du gaur. Kuba edo libertateen dilema eztabaida izanen da, 20:00etan, Foroaren egoitzan, Nafarroako Foruen karrikako 3.ean.

### ANTZERKIA

► **Atarrabia:** Gaur Markelife taldeak Aló, Europa lana antzetzuko du, udaletxeko plazan, 21:00etan.

### KIROLAK

► **Otsagi:** Igandean Nafarroako Pirinioetako BTTren II. Saria (mendiko bizikleta proba) egiten dute Otsagiko eremuetan barrena. Irteera goizeko 11:00etan izanen da.

### IKASTAROAK

► **Barañain:** Emakumeen taldeak emakumeendako gizarte trebetasunen inguruko ikastaroa antolatuko du.

► **Iruñea:** Alde Zaharreko Auzo elkarteak hainbat ikastaro antolatuko ditu urri, azaro eta abendurako. Yoga, masaje, argazkilaritza, txalaparta, aerobic, marrazketa edo eho-ziri lanaren inguruko ikastaroak egiten dituzte. Matrikulazioa urriaren 8a arte egin daiteke, auzo elkartearen egoitzan (Al-dapa, 5) edo telefonoan (948-212526).

### ERAKUSKETAK

► **Burlata:** Igandea arte 'Un paseo por el Cosmos' erakusketa izanen da Kultur Etxean. La-

runbata bitarte 19:00etatik 21:00etara bisita daiteke erakusketa, eta igandean, 12:00etatik 14:00etara.

### BESTELAKOAK

► **Ezkaroze:** Bihar, larunbatare-

kin, Gazte Eguna eginen dute. Herri bazkaria, haurrendako jokoak, afarirako zikirojatea eta kontzertua izanen dira, besteak beste.


► **Iruñerria:** IKaren Iruñerriko euskaltegietan (Arturo Cam-pion, Barañain, Ermitagaña, Mendillorri eta Atarrabia) ize-

na emateko epea azkeneko egunetan da.

► **Iruñea:** Ortzadar Euskal Folklore Taldeak bertako dantzak eta musika ikasi zein ikertzeko nahia duenari deia egiten dio. Informazioa: 948-252665 edo 948-223107 telefonoetan.

## Arestiren liburutegia

Castelao nos



Chora porque o cacique deixou a pedir. Se fosse um irmão labrego teria de fender o coração.

Sauntxoak eskeko-pobretu duelako negar egiten du. Nekazari anaia bat baltiz, bihotza janen zion.